



7. 2016rako GASTU FISKALEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2016

GASTU FISKALEN AURREKONTUA

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen Testu Bategina onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Fundazio eta Partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuan, bere 5. artikuluan hauxe ezartzen da: “Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrek, hala badagokio, beren tributuei eragiten dieten zerga-onuren zenbatekoa jasoko dute.” Bestalde, gaineratzen da: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontu orokorrek halaber jasoko dute Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Jaurilaritzari emandako informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuko gastuetan laguntzeko Foru-Aldundiek egindako ekarpenei dagozkien zerga-onurei buruz.

Gastu Fiskalen Aurrekontuaren definizioa honakoa hau izan daiteke: politika ekonomiko eta sozialaren helburu jakin batzuk lortzeko zuzendutako zerga pizgarriak izatearen ondorioz, urtean zehar gerta litekeen zerga sarrerak gutxitzearen zenbatespena.

Politika fiskala eta erakunde publikoek ekonomian egiten duten esku-hartzea aztertzeko tresna da Gastu Fiskalen Aurrekontua, eta haren bidez jakin daiteke zer nolako eragina izango duen zerga-arloan xede sozialak eta ekonomikoak (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aurrezte-eta inbertsio-jardueren sustapena, etab.) lortzeko egiten diren ekimenek. Horrela jokaturik, gizarteko sektoreek edo jarduera ekonomikoek ogasunei egiten dizkieten ekarpen efektiboak buruzko informazioa jasotzen da, informazio gardeneko esparru bat sortuz.

ELGEK, gastu fiskalak, zergaren egitura “arruntetiko edozein desbideratzea dela esanaz definitzen ditu, holakotzat hartuta zergapetu nahi den zergapeko egitateari dagokion oinarritzko konfigurazioa. Gastu fiskal hauek era askotakoak izan daitezke: salbuespenak, gastu kengarriak, murrizketak oinarri ezargarri edo kitagarrietan, zerga-tasa murriztuak, kuota osoaren hobariak eta kenkariak, atzeratzeak, eta abar, eta horietako ohikoenak eta gehien erabiltzen direnak salbuespenak, zerga-tasa murriztuak eta kuotako kenkariak dira.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak Gastu Fiskalen Aurrekontua urtero era koordinatuan eta bateratuan egiteko oinarriak ezarri zituen. Horretarako, bere baitan ordezkaturik dauden erakunde guztien ordezkariarekin, lan talde bat sortu zuen. Lan talde honek zuen hasierako egitekoa gastu fiskaltzat hartu eta zergaren egiturazko elementutzat jo behar ziren zerga kontzeptuei buruz irizpide partekatuak adostea izan zen

PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES

El Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 5 que “los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma, consignarán, en su caso, el importe de los beneficios fiscales que afecten a sus propios tributos”. Además añade que “los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán igualmente la información que facilite al Gobierno el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco”.

El Presupuesto de Gastos Fiscales puede definirse como la cuantificación de la disminución de ingresos tributarios que, presumiblemente se producirá a lo largo del año, como consecuencia de la existencia de incentivos fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

El Presupuesto de Gastos Fiscales sirve de instrumento para el análisis de la política fiscal y de la intervención pública en la economía, proporciona información sobre los sacrificios fiscales que supone la atención a diferentes objetivos de carácter social y económico (educación, vivienda, sanidad, promoción del ahorro, de la inversión, etc.), y contribuye a un mejor conocimiento y transparencia de las aportaciones efectivas a la Hacienda de cada sector o actividad económica y de cada grupo social.

La OCDE define los gastos fiscales como cualquier desviación de la estructura “normal” del impuesto, entendiéndose por tal, la configuración básica que responde al hecho imponible que se pretende gravar. Estos gastos fiscales pueden adoptar formas variadas: exenciones, gastos deducibles, reducciones en las bases imponibles o liquidables, tipos impositivos reducidos, bonificaciones y deducciones de la cuota íntegra, diferimientos, etc., siendo los más comunes y utilizados las exenciones, tipos impositivos reducidos y las deducciones en la cuota.

El Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi sentó las bases para la realización anual de forma coordinada y conjunta del Presupuesto de Gastos Fiscales. A estos efectos, creó un grupo de trabajo con representación de las instituciones representadas en su seno con el cometido inicial de acordar unos criterios compartidos sobre los conceptos tributarios que debían ser considerados gastos fiscales y los que tenían la consideración de elementos estructurales del impuesto.

Etengabe eguneratzen eta berrizatzen dagoen beti hain eztabaidagarria den gai honetan ikertzeko eta aztertzeko baterako ahalegin honek, zerga ezberdinetan gastu fiskaltzat jotzeko kontuan hartu beharreko kontzeptu ezberdinak zehazteko, Euskadiko Zerga Kideketarako Sailean ordezkariak duten erakundeen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta harmonizazioa posible egin ez ezik gastu fiskalen kuantifikazio eta zenbatespenerako irizpide metodologiko erkideak ezartzeko ere balio izan du, kontzeptuen araberako garapenen edo eskuragarri dagoen zenbatespen eta informazioaren hobekuntzen emaitza den geroragoko aurrerapen eta berrazterketarako testuinguru ireki batean.

OCTEK berak eginiko enkargu bati erantzunez, erakunde arteko lantalde hori 2015ean Zerga Gastuen Aurrekontuaren urteko kalkulua egiteko metodologiaren analisi bateratua egiten hasi da, berau aztertu, eta, hala badagokio, eguneratzeko. Analisi horren ondorioz, aintzat hartu da 2016rako aurrekontu honetan aldaketa batzuk sartzea komeni dela emandako informazioa zehaztasun gehiagorekin jasotzeko, zehazki, gehiago xehatu ahal diren kontzeptu erantsien erabilera ikusten denean. Era berean, kontuan hartu dira zerga-gastua sortzen duten arauen zenbait aldaketa. Nolanahi ere, kalkulua egungo metodologia berrikusteko prozesua amaitzen denean, bestelako aldaketak sartu eta azalpen-eskuliburu eguneratua argitaratu ahal izango da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta 2016ko zerga-gastuen aurrekontuan izandako nobedade esanguratsuenen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Hainbat salbuespenetatik eratorritako zerga-gastuaren kalkulua gaineratu da. Zerga-gastuen aurreko aurrekontuan ez ziren kuantifikatu, baina esanahi berezia dute, bai zenbatetsitako zenbatekoa altua delako, bai eraginpean dauden onuradunen kopuruagatik edota gizartean duen garrantziagatik. Helburua da aurrekontuan salbuespenen inguruan jasotzen den informazioa hobetzeko eta zabaltzeko prozesua abiaraztea -bereziki zaila da zehaztea, ez baitago erregistro eta iturri zuzenik- eta etorkizunean horrekin jarraitzea zergaren salbuespen gehien kuantifikazioa osatu arte.

Zehazki, 2016rako zerga-gastuen aurrekontu honetan salbuespen-multzo ugariaren kalkulua gaineratu da. Hona hemen adierazgarrienak:

2.500 eurorainoko salbuespen partziala loteria jakin batzuen sarien gaineko zerga berezian.

Terrorismoaren ekintzako prestazioak.

Kaleratzeagatik kalte-ordainak.

Este esfuerzo conjunto de estudio y análisis en un tema siempre tan controvertido y en constante actualización y renovación, ha posibilitado no sólo la coordinación, colaboración y armonización entre las Instituciones representadas en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi para la concreción de los distintos conceptos a considerar gasto fiscal en los diferentes tributos, sino que ha servido para establecer unos criterios metodológicos comunes para la cuantificación y estimación de los gastos fiscales, en un contexto abierto a futuros avances y revisiones, fruto de desarrollos conceptuales o de mejoras en la estimación y la información disponible.

De hecho, respondiendo a un encargo del propio OCTE, el referido grupo de trabajo interinstitucional ha iniciado durante el año 2015 un análisis conjunto de la metodología para el cálculo anual del Presupuesto de Gastos Fiscales con objeto de revisarla y en su caso, actualizarla. Fruto de este análisis, se ha considerado conveniente la introducción de diversas modificaciones ya en este Presupuesto para 2016, principalmente en el sentido de ampliar el detalle de la información divulgada en aquellos ámbitos en que se ha detectado el uso de conceptos agregados susceptibles de mayor desglose. Asimismo, se han tenido en consideración determinados cambios normativos que generan gasto fiscal. Ello sin perjuicio de que, una vez culminado el proceso de revisión de la actual metodología de cálculo, se puedan incorporar modificaciones adicionales y editar un manual explicativo actualizado.

Como novedades más significativas en el Presupuesto de Gastos Fiscales de 2016, respecto al del ejercicio anterior, se destacan las siguientes:

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF)

Se incorpora una estimación del gasto fiscal derivado de varias exenciones que en el anterior Presupuesto de Gastos Fiscales no fueron objeto de cuantificación, pero que tienen especial significación, ya sea por su importe estimado elevado, por el número de beneficiarios a los que afecta o por su propia trascendencia social. Se trata del inicio de un proceso de mejora y ampliación de la información contenida en el Presupuesto sobre exenciones –especialmente compleja de determinar por la insuficiencia de registros y fuentes directas– al que se pretende dar continuidad en un futuro hasta completar la cuantificación de la mayor parte de las exenciones del Impuesto.

En concreto, en este Presupuesto de Gastos Fiscales para 2016, se incorpora una estimación de una numerosa batería de exenciones, las más representativas:

La exención parcial hasta 2.500 euros en el gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías.

Prestaciones por actos de terrorismo.

Indemnizaciones por despido.

Baliaezintasun edo ezgaitasunaren pentsioak.

Seme-alaba bakoitzeko, amatasuneko, umezurtzeko prestazioak.

Atzerrian egindako lanak (PFEZren Foru Arauen 9) artikuluko 17. Puntuan).

Kalkuluaren metodologia, funtsean, honetan datza: salbuetsitako errenten gaineko informazio-ereduetan aitortutako informazioan oinarrituta, eta zenbait egokitzapen egin ondoren, mikrosimulazio-metodo batean bidez kalkulatzeko zein izango litzatekeen errenta horien hartzaile bakoitzak (salbuetsizat kalifikatu ondoren) likidatzeari utziko liokeen kuota likidoa.

Beste alde batetik, lan-errendimenduen hobariei buruzko informazioa beste modu batean jasotzen da, hau da, hobari orokorretatik eta ezgaitasuna duten langileei aplikatu beharrekoetatik bereizita. Gainera, zenbait kenkari hobeto sailkatu dira.

Sozietateen gaineko Zerga

Zerga-gastuen destinoa zehatzago azaltzeko, 2016ko Zerga Gastuen Aurrekontuan Sozietateen gaineko Zergaren kuotan egon diren kenkari nagusien banakatzea sartu da (aurreko urtean ez zen jaso).

Horrenbestez, kenkarietan gaineratutako datua banakatu, eta honako hauek eragindako kenkariak identifikatu eta kuantifikatu dira:

Aktibo zirkulatuzaile berrietan eginiko inbertsioak.

Ikerketa eta garapenerako ekintzak eta berrikuntza teknologikoaren ekintzak (I+G+b).

Ingurumenarekin loturiko inbertsioak eta gastuak.

Enplegua sortzea.

Kultura sustatzea.

Mezenasgoko ekintzak.

Kooperatibak.

Sozietateen gaineko Zergaren kuotako kenkarien banakatze hori ekitaldian sortu eta aplikatu diren gainean besterik ez da egiten; hau da, momentuz ez da zabaldu ekitaldian aplikatu diren baina aurreko urteetan sortu ziren kenkarietara, zaila baita kontzeptu bakoitzari zein dagokion zehaztea.

Pensiones de invalidez e incapacidad.

Prestaciones por hijo, orfandad, maternidad.

Trabajos realizados en el extranjero (Punto 17 del art. 9 de las Normas Forales del IRPF).

La metodología de cálculo consiste básicamente en, a partir de la información declarada en los modelos informativos sobre rentas exentas y tras aplicar determinados ajustes, estimar, mediante un método de microsimulación, cuál sería la cuota líquida que cada perceptor de dichas rentas deja de liquidar como consecuencia de su calificación como exentas.

Por otra parte, la bonificación a los rendimientos del trabajo se informa de manera diferenciada entre la que tiene carácter general y la aplicable en los trabajadores con discapacidad y se procede además a una mejor clasificación de algunas deducciones.

Impuesto sobre Sociedades

En la misma línea de ofrecer un mejor detalle del destino de los gastos fiscales, se incorpora en el Presupuesto de Gastos Fiscales de 2016 un desglose de las principales deducciones en la cuota de Impuesto sobre Sociedades que no se reflejaba en el ejercicio anterior.

Por tanto, se desglosa el dato agregado de deducciones, identificando y cuantificando las deducciones generadas por:

Inversiones en activos corrientes nuevos.

Actividades de investigación y desarrollo y actividades de innovación tecnológica (I+D+i).

Inversiones y gastos de carácter medioambiental.

Creación de empleo.

Fomento a la cultura.

Actividades de mecenazgo.

Cooperativas.

Este desglose de las deducciones en la cuota del Impuesto sobre Sociedades solo se realiza respecto a las que han sido generadas y aplicadas en el ejercicio, sin extenderse por el momento a las deducciones aplicadas en el ejercicio pero que fueron generadas en ejercicios anteriores, por la dificultad que entraña su imputación a cada uno de los diferentes conceptos.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergari dagokion Zerga Gastuen Aurrekontuaren egitura eta terminologia egokitu egin da (2/2014 Foru Araua, 2014ko urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarena. Gipuzkoa. 37/2013 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, Sozietateen Gaineko Zergari buruzkoa. Araba. 11/2013 FORU ARAUA, abenduaren 5koa, Sozietateen Gaineko Zergari buruzkoa. Bizkaia) zerga arautzen duen araudi berriarekin bat etortzeko. 2014tik aurrera sartu zen indarrean, eta nagusiki 2015etik aurrera ditu biltzeko ondorioak. Zehazki, zerga-gastua sortzen duten lau epigrafe handi identifikatu dira: 2.1) irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako egokitzapenak, 2.2) zerga-mota bereziak, 2.3) hobariak eta 2.4) kenkariak. Era berean, epigrafe hauetako lehenengoa beste hiru azpiepigrafitan banakatu dira: 2.1.1) gastuen arloan eginiko zuzenketak, 2.1.2) diru-sarreraren arloan eginiko zuzenketak eta 2.1.3) zerga-oinarriari eginiko zuzenketak. Hiru azpiepigrafitan, hainbat kontzeptu jasotzen dira, eta horietako batzuk 2016ko aurrekontu honetan kuantifikatu dira lehen aldiz, 2015ean erregistratutako emaitzak ezagututa eta erreferentziatuz hartuta. Honako irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako egokitzapen hauek nabarmendu behar dira, kuantitatiboki adierazgarriki baitira:

Merkataritza-funts finantzarioa.

Jabetza intelektuala edo industrialia ustiatzeagatik murrizketa.

Salbuespen partziala duten sozietateek.

Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa.

Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia.

Zerga Bereziak. Elektrizitatearen gaineko Zerga

2015etik aurrera, Elektrizitatearen gaineko Zerga ez da fabrikazioaren gaineko zerga gisa egituratzen (lehen Fabrikazioaren Zerga Berezien baitan sartzen zen), eta orain kontsumorako edo norberak sortutako elektrizitatearen ekoizleen kontsumorako energia elektrikoaren horniduraren zerga ezartzen du. Horregatik egokitu da terminologia eta hurrenkera.

Autonomia Erkidegoan, Gastu Fiskalen 2016rako Aurrekontuak 6.015,34 milioi eurokoa da, hau da, kontuan hartutako zergetan itundutako zergengatik (aurrekontuan sartutako diru-sarreraren eta gastu fiskalen batura) aurreikusitako diru-sarrera teorikoen %31,2.

Por otra parte, se ha adaptado la estructura y la terminología del Presupuesto de Gastos Fiscales referente al Impuesto Sociedades a un formato más acorde con la nueva normativa reguladora del Impuesto (Norma Foral 2/2014 de 17 Ene. Gipuzkoa, sobre el Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Norma Foral 37/2013 de 13 Dic. Álava, Impuesto sobre Sociedades y Norma Foral 11/2013 de 5 Dic. Bizkaia, del Impuesto Sobre Sociedades) que entró en vigor a partir de 2014, con efectos recaudatorios principalmente a partir de 2015. En concreto se identifican tres grandes epígrafes generadores de gasto fiscal: 2.1) los ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias, 2.2) los tipos impositivos especiales y 2.3) las deducciones. A su vez, el primero de estos epígrafes se desglosa en otros tres subepígrafes: 2.1.1) correcciones en materia de gastos, 2.1.2) correcciones en materia de ingresos y 2.1.3) correcciones a la base imponible. Cada uno de los tres subepígrafes incluye diversos conceptos, de los cuales algunos se cuantifican en este Presupuesto de 2016 por primera vez, una vez conocidos y tomados como referencia los resultados registrados en 2015. A destacar, por su significación cuantitativa los siguientes ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias:

Fondo de comercio financiero.

Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial.

Entidades parcialmente exentas.

Compensación para fomentar la capitalización empresarial.

Reserva especial para el fomento del emprendimiento y el fortalecimiento de la actividad productiva.

Impuesto Especiales. Impuesto sobre la Electricidad

A partir de 2015, el Impuesto sobre la Electricidad, que anteriormente se encuadraba entre los Impuestos Especiales de Fabricación, deja de configurarse como un impuesto sobre la fabricación, para pasar a ser un impuesto que grava el suministro de energía eléctrica para consumo o su consumo por los productores de aquella electricidad generada por ellos mismos. Esta circunstancia motiva la correspondiente adaptación terminológica y de orden.

El Presupuesto de Gastos Fiscales para el año 2016 en la Comunidad Autónoma se eleva a 6.015,34 millones de euros, lo que supone el 31,2% de los ingresos teóricos por tributos concertados (suma de los ingresos presupuestados y los gastos fiscales) en las figuras tributarias consideradas.

(mila eurotan)

(miles de euros)

ZERGA KONTZEPTUAK CONCEPTOS IMPOSITIVOS	FFAA-ETAKO SARREREN AURREKONTUA/ PRESUPUESTO INGRESOS DD.FF. (a)	GASTU FISKALAK GASTOS FISCALES (b)	% (b)/ (a+b)*
1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PEEZ) Impuesto s/ la Renta de las Personas Físicas (IRPF)	4.830.609	1.762.508	26,7
2. Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	1.175.082	394.356	25,1
3. Ondarearen / Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga Impuesto sobre el Patrimonio / Riqueza y Grandes Fortunas	154.800	164.867	51,6
4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA)	5.402.900	3.365.330	38,4
5. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko Zerga Impuesto s/ Transmisiones Patrimoniales y AJD	154.385	135.052	46,7
6. Garraiobide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezia Impuesto Especial s/Determ. Medios de transporte	17.260	4.124	19,3
7. Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak Impuestos Especiales de Fabricación	1.353.067	162.542	10,7
8. Elektrizitatearen gaineko Zerga Impuestos sobre la Electricidad	77.307	2.068	2,6
9. Aseguru Sarien gaineko Zerga Impuesto sobre Primas de Seguros	74.000	24.496	24,9
GUZTIRA TOTAL	13.239.410	6.015.344	31,2
ARAUDI AUTONOMOAREN PEKO ITUNDUTAKO ZERGAK (1, 2, 3 eta 5) TRIBUTOS CONCERTADOS DE NORMATIVA AUTÓNOMA (1, 2, 3 y 5)	6.314.876	2.456.784	28,0

* Gastu fiskalen eta diru-sarrera teorikoen arteko erkaketa (aurrekontuan jasotako diru-sarrerak eta gastu fiskalak).

* Comparación entre los gastos fiscales y los ingresos teóricos (ingresos presupuestados y gastos fiscales).

Gastu fiskalen %40,8 araudi autonomoaren peko itundutako zergei dagokie: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga (Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga, Gipuzkoan) eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko Zerga.

El 40,8% de los gastos fiscales corresponde a tributos concertados de normativa autónoma: Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre el Patrimonio (Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas en Gipuzkoa) e Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF)

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga pertsona fisikoen errenta zergapetzen duen izaera zuzeneko eta mota pertsonal eta subjektiboko araudi autonomoaren arabera itundutako zerga bat da. Gastu fiskala sortzen da errentaren osagarrietako bat zergapean ez dagoenean edo errentaren osagarrietako bati nahiz errenta osoari dagozkion zergak egiturazko tarifaren arabera ordaintzen ez direnean.

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas es un tributo concertado de normativa autónoma, de carácter directo y naturaleza personal y subjetiva que grava la renta de las personas físicas. Se genera gasto fiscal cuando algún componente de renta no es objeto de tributación o cuando un componente o el conjunto de la renta no tributa en su totalidad según la tarifa estructural.

Banakako zerga ordainketa da egiturazkotzat jotzen dena. Beraz, baterako zerga ordainketa gastu fiskaltzat jotzen da, familia unitatea gutxiago zergapetzen duten berariazko trataerak bezala. Aitzitik, ondarezko irabazien eta galeren zerga-ordainketa egiturazko izaera dutela jotzen da.

Horrez gain, honako hauek ez dira gastu fiskaltzat hartzen: Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergapeko ondare irabazien kargarik eza; zergapetze bikoitza ekiditeko ezarritako kenkari teknikoak; alokatuko diren etxebizitzak erosteko maileguren interes tasen kenkaria (gastu hori errenta lortzeko ezinbestekotzat jotzen baita); familia kenkariak zein kenkari pertsonalak, egiturazko izaera baitute; eta aitortpena egiteko derrigortasunaren gutxienekoak. Modu berean, ez dira gastu fiskaltzat hartzen denboran irregulartasun nabariak lortutako errendimenduei aplikatutako murriztapenak edo bi urte baino gehiagoko sorpen-zikloa dutenak, zerga karga egokitzea helburu dutenak errenta zerga aldi batzuetan sortu delako

Hala ere, honako hauek gastu fiskaltzat hartzen dira: ondasun jakin batzuk dohaintzan ematearen ondorioz agertzen diren ondare irabazi eta murrizketen kargarik eza; errenta batzuen salbuespena; lan errendimenduen hobaria aplikatzeagatik, Pentsio Plan eta BGAEtarako ekarpenengatik eta inbertsioarengatik oinarri ezargarriaren gutxipenak; eta baita koiunturazko pizgarriak ere.

Horiek kuantifikatzeko, simulazio teknikak erabiltzen dira, bai aitortzen duten guztiekin bai zerga oinarriaren tartean arabera zergadunek osatutako lagin adierazgarri bat hartuta, zerga onuren eragina zehazten da zergadunek zergadun. Zenbait errentaren gaineko salbuespenen kalifikaziotik eratorritako zerga-gastua, oro har, informazio-ereduetan aitortutako informazioaren bidez kalkulatu da. Aldez aurretik dagozkion egokitzapenak egiten dira, eta mikrosimulazio-metodoa erabiltzen da. Kuotako kenkariei lotutako gastu fiskala, benetan aplikatu den zenbateko ekarpena da. Kuota osoa nahikoa ez delako aplikatu ez diren kenkariei dagokienez, izandako galera kenkari bakoitzerako aitortutako zenbatekoari jarraiki proportzionalki banatzea erabaki da. Baina, PFEZn jasotako gastu fiskal guztiak ez dira zenbatzen, batzuetan, datuak ez daudelako eta, bestetan, balorazio bereiztua behar dituzten arazoak sortzen direlako.

Autonomia Erkidego osorako, zenbatetsitako gastu fiskalak 1.762,5 milioi eurokoak dira, hau da, zerga honen 2016rako diru-sarrera teorikoen (aurrekontuan sartutako diru-sarreraren eta gastu fiskalen batura) %26,7.

PFEZri dagozkion gastu fiskalen kontzeptuen arabeko xehatzea (mila eurotan) honako hau da:

Se considera estructural el régimen de tributación individual. Por tanto, la tributación conjunta genera gasto fiscal, al igual que los tratamientos específicos que implican un menor gravamen de la unidad familiar. La tributación de las ganancias y pérdidas patrimoniales se considera que tienen un carácter estructural.

Además, no constituyen gasto fiscal: la no sujeción de los incrementos de patrimonio gravados en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, las deducciones técnicas para evitar la doble imposición, la deducción de intereses por créditos para la adquisición de vivienda destinada a alquiler (al considerarse gasto necesario para la obtención de renta), las deducciones familiares y personales, por tener carácter estructural, y los mínimos de la obligación de declarar. Tampoco se consideran gasto fiscal las reducciones aplicadas a los rendimientos obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo o con ciclo de generación superior a dos años, que tratan de adecuar la carga tributaria por generarse la renta en varios períodos impositivos.

Sin embargo, sí son gasto fiscal: la no sujeción de los incrementos y disminuciones patrimoniales que se pongan de manifiesto con motivo de donaciones de determinados bienes, las exenciones de ciertas rentas, las minoraciones de la base imponible debidas a la aplicación de la bonificación de los rendimientos del trabajo, a las aportaciones a Planes de Pensiones y EPSV y por inversión, así como, los incentivos coyunturales.

Para su cuantificación se aplican técnicas de simulación bien con toda la población de declarantes bien con una muestra representativa de contribuyentes por tramos de base imponible, determinando para cada contribuyente el impacto de los beneficios fiscales. El gasto fiscal derivado de la calificación de exentas de determinadas rentas se calcula con carácter general a partir de la información declarada en los modelos informativos que, previa aplicación de los oportunos ajustes, se somete a un método de microsimulación. El gasto fiscal asociado a las deducciones en la cuota es el montante realmente aplicado. Para la parte de las deducciones no aplicadas por insuficiencia de la cuota íntegra se opta por repartir la pérdida proporcionalmente al importe declarado de cada deducción. Pero, no todos los gastos fiscales considerados en el IRPF son computados, debido a la ausencia de datos, y, en otros casos, se plantean dificultades que precisan de una evaluación individual.

Para el conjunto de la Comunidad Autónoma los gastos fiscales estimados se cuantifican en 1.762,5 millones de euros, lo que supone un 26,7% de los ingresos teóricos (presupuesto de ingresos + gastos fiscales) por este Impuesto para el año 2016.

El desglose por conceptos de los gastos fiscales correspondientes al IRPF, en miles de euros, es el siguiente:

	Mila eurotan Miles de euros
Salbuespenak Exenciones	198.879
Berrinbertsioa ohiko etxebizitzan Reinversión vivienda habitual	11.540
Jasotako dibidenduak Dividendos percibidos	25.367
Loterien gaineko zerga berezia Gravamen especial loterías	42.717
Terrorismo-ekintzen ondorioz jasotako prestazioak Prestaciones por actos de terrorismo	3.213
Kaleratzeagatiko kalte-ordainak Indemnizaciones por despido	20.291
Baliazintasun pentsioak Pensiones de invalidez	81.926
Seme-alabengatiko eta zurtasunagatiko prestazioak Prestaciones familiares por hijo, orfandad..	2.430
Atzerrian egindako lanak Trabajos realizados en el extranjero	4.544
Gainerako salbuespenak Resto de exenciones	6.852
Zerga-oinarriaren murrizketak Reducciones en la base imponible	1.180.809
Lanaren etekinengatiko hobaria Bonificación rendimientos del trabajo	774.529
Gizarte aurreikuspeneko ekarpenak Aportaciones a la previsión social	183.764
Baterako zerga-ordainketa Tributación conjunta	218.123
Bizi-aseguruen kontratuen araubide iragankorra Régimen transitorio seguros de vida	4.393
Kuota osoari ezarritako kenkariak Deducciones en la cuota integra	382.820
Ohiko etxebizitza Vivienda habitual	359.531
Jarduera ekonomikoak Actividades económicas	2.049
Dohaintzak Donativos	13.374
Kuota sindikalak Cuotas sindicales	7.282
Bestelako kenkariak Otras deducciones	584

Sozietateen gaineko Zerga

Ekonomia Itunaren 14. artikuluan ezarrita dago Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga dela, eta araudi autonomoaren pean egongo dela zerga egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan. Beraz, Zerga honen araudi autonomoa ondorengo baldintza hauetako edozeinetan dauden erakundeei aplikatuko zaie:

- Zerga-egoitza Euskadin dutela, beraien eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa ez duten erakundeak, ala, horrela balitz, beraien eragiketa osoen %75 edo gehiago lurralde erkidean egiten ez dutenak.

- Eragiketa guztiak Euskadin egiten dituztela, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa duten erakundeak, zerga egoitza non duten kontuan hartu gabe.

Kontuan hartu behar da honako hauek ez direla gastu fiskaltzat hartzen: "erakunde" publiko ezberdinentzat dauden salbuespenak, subjektu pasiboa eta aktiboa bera dutelako, eta zergapetze bikoitzarengatik kenkariak, horiek duten izaera teknikoagatik.

Hala ere, gastu fiskaltzat hartzen dira ondorengo hauek: amortizatze askatasuna (nahiz eta ekitaldi honetan kontzeptu honetatik zuzenketa zenbatu ez diren), aparteko onuren berrinbertsioarengatik salbuespena, orokorra ez den bestelako karga tasak eta kenkariak. Baita ere, tamaina txikiko enpresentzako zerga pizgarriak eta gertakizun zehatz batzuei lotutakoak, dohaintzak, eta atzerapenerako beste kasu batzuk, bai eta dokumentuan zehaztutako irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako gainerako egokitzapenak ere.

Gastu fiskala, 2016ko ekitaldian, 394,4 milioi eurokoa izango dela aurreikusi da. Zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidego osorako zerga honetarako aurreikusitako diru sarrera teorikoen %25,1en bestekoa da.

Honako hau da Sozietateen gaineko Zergari dagozkion gastu fiskalen kontzeptuen arabera xehatzea (mila eurotan):

Impuesto sobre Sociedades

En el artículo 14 del Concerto Económico se establece que el Impuesto sobre Sociedades es un tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos pasivos que tengan domicilio fiscal en el País Vasco. Así, la normativa autónoma de este Impuesto se aplica a las entidades que se encuentren en cualquiera de los siguientes supuestos:

- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones no sea superior a 7 millones de euros, o siéndolo no realicen en Territorio Común el 75% o más del total de sus operaciones.

- Entidades que operen sólo en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior exceda de 7 millones de euros, independientemente de su domicilio fiscal.

A tener en cuenta que no tienen la consideración de gasto fiscal las exenciones relativas a distintas "entidades" públicas, por coincidencia de sujeto activo y pasivo y las deducciones por doble imposición por su carácter técnico.

